



CHH TXURI-URDIN IHTren ARAUDIA

ERRESPETUA

- Entrenamendu eta partiduetarako oinarrizko araua ERRESPETUA DA, entrenatzaile, taldekide, aurkari, zuzendaritzako kide, arbitro, ordezkarietako errespetua; jendearekiko errespetua orohar. Halaber, Klubaren izenean erabiltzen direnean, kirol-instalazioetako errespetua eta horiek zaintzea eskatuko da.
- Gure jokalaria errespetu eta kiroltasun balioetan hezteko izango dugu beti helburu.

IRAKASKUNTZA

- Entrenamenduetan eta partidetan, entrenatzaileek bertan gertatzen diren gorabeheri buruz agintzeko eta erabakitzeko gaitasuna dute. Jokalariak ezin izango dituzte haien jarraibideak bete gabe utzi, ezta horiei erantzun ere. Interesa erakutsi behar da eta entrenamenduak ahalik eta jarrerarik onenarekin burutu. Entrenatzaileek zuzenketaren bat egiten dutenean ez dira kritika egiten ari, irakasten ari zaizkigu, hobetzeko.

GURE JOKALARIEN JARRERA

- Kirolari-jarrera izan. Entrenamenduetan eta partidetan ez da onartuko taldekideren batekiko edo aurkari batekiko inolako errespetu faltarik, gutxiesterik edota erasorik. Arbitroaren aurrean ere ezin da protesta egin. Bera gabe ezingo genuke jokatu eta jokalariek baino gehiago jakin ohi du.
- Kirolari-prestakuntza entrenamendu eta partidetatik at ere hedatzen da. Zaindu zaitez eta zaindu taldekideak, gauzak ongi doazenean gozatu eta guk nahi bezain ongi ez doazenean animatu ingurukoak.



DIZIPLINA

- Entrenamenduetan eta partidetan puntualtasuna eskatuko da. Joan ezin denean behar besteko denboraz jakinaraziko zaie entrenatzaileei.
- Taldearen inguruko guztiekiko errespetua eskatuko da (aurretik aipatu bezala).
- Materiala eta Klubeko instalazio guztiak zaintzea eta garbitzea eskatuko da.
- En da onartuko taldekide, aurkari, talde tekniko, arbitro, ordezkari, etb.-en kontrako eraso fisikorik, ezta hitzezko erasorik ere. Bizikidetzaren oinarrizko arauak hausten dituzten portaerak ere ez dira onartuko, hala nola, lapurreta, bullyinga edo jazarpena.

Eskatutako diziiplina betetzen ez bada, jokalaria falta arinekin edota oso larri artekoekin zigortu ahalko dira.

Falta oso larria gertatuko balitz, Zuzendaritza Batzordeak, inplikaturako alderdiei entzun ondoren, kasu horretan aplikatu beharreko diziiplina-neurria edo zehapena erabakiko du, eta uneoro beteko da.

KONPROMISOA

- Jokalari guztiei, bai eta senideei eta gertukoei ere, klubaren zereginetan laguntzea eskatu eta eskertuko zaie, hala nola arbitraje zein mahaietan, partiden antolaketan eta klubak antolatutako ekitaldietan.
- Gurasook kiroltasunaren eta taldearekiko konpromisoaren eredu izan behar dugu, aurretik adierazitakoa betez; partidetan gure jokalaria lasaitasunez animatuko ditugu emaitza dena delakoa izanik ere. Haurrek ikasteko erarik onena, eredu egoki bati jarraitzea da.



HOCKEY-ESKOLA

Jokalari guztiei jokabide eredugarria eskatuko zaie. DIZIPLINA eta ERRESPETUA

- HOCKEY ESKOLA 8 urtetik gorako haurrei zuzenduta dago.
- HOCKEY ESKOLAn sartzeko gutxieneko patinatze-ezagutzak eskatuko dira. Entrenatzaileak izango dira edozein haur HOCKEY ESKOLAN sartzeko baimena emango dutenak, patinajeari buruzko gutxieneko ezagutza horien arabera.
- Jokalari guztiak HOCKEY ESKOLAn egongo dira entrenatzaileen ebaluazioaren bidez eskatutako helburuak lortzen dituzten arte.
- S11rako adina duten jokalariai, ebaluazioaren ondoren HOCKEY ESKOLAn eskatzen diren helburuak gaindituz gero, hurrengo denboraldian S11 kategoriara pasatuko dira.
- S13rako adina duten jokalariai, ebaluazioaren ondoren HOCKEY ESKOLAn eskatzen diren helburuak gaindituz gero, hurrengo denboraldian S13 kategoriara pasatuko dira.
- S13rako adina gainditzen duten jokalarien kasuan, ebaluazioaren ondoren HOCKEY ESKOLAn eskatzen diren helburuak gaindituz gero, kasu bakoitzaren arabera eta mailaren arabera, entrenatzaileek erabakiko dute beste behin ere, non entrenatuko duten eta haiei dagokien kategoriako partiduak jokatzen hasteko gai ote diren.



U11 eta U13 MAILA

Jokalari guztiei jokabide eredugarria eskatuko zaie. DIZIPLINA eta ERRESPETUA

ENTRENAMENDUAK

- Entrenamenduak derrigorrezkoak dira. Bertaratzeko eta garaiz iristeko konpromisoa eskatuko da. Puntualtasuna beharrezkoa da taldekideekiko eta entrenatzaileekiko errespetuzko modu bat baita.
- **U13 jokalarien** kasuan, aldagela jokalaria, entrenatzaile eta ordezkariak baino ezin izango dute erabili. Guztiz debekatuta dago horietara senitartekoak sartzea.

JOAN-ETORRIAK

- Joan-etorrietan eta partidetan Klubaren kirol-ekipamendua erabiltzea derrigorrezkoa izango da.
- Jaialdietan jokalaria guztiek joko-denbora berean parte hartuko dute, modu justu eta proportzionalen. Denboraldi bakoitzean dagoen jokalaria kopuruaren arabera edota jaialdiaren arabera, kategoria bakoitzean bi talde osatzeko saiakera egingo da, jokalaria guztiek goatzeko joko-minutu gehiago izan ditzaten.
- Haien garapena hobetzeko asmoz, adinagatik posible duten jokalaria guztiek goragoko kategoriako partidetan parte har dezaten saiakera egingo da, betiere kategoria horretan sortu daitezkeen beharrak kontuan hartuta.



U15, U18 eta SENIOR KATEGORIA

Jokalari guztiei jokabide eredugarria eskatuko zaie. DIZIPLINA eta ERRESPETUA

ENTRENAMENDUAK

- Entrenamenduak derrigorrezkoak dira. Bertaratzeko eta garaiz iristeko konpromisoa eskatuko da. Puntualtasuna beharrezkoa da taldekideekiko eta entrenatzaileekiko errespetuzko modu bat baita.
- Aldagela, jokalaria, entrenatzaile eta ordezkariak baino ezin izango dute erabili. Guztiz debekatuta dago horietara senitartekoak sartzea.

JOAN-ETORRIAK

- Joan-etorrietan eta partidetan Klubaren kirol-ekipamendua erabiltzea derrigorrezkoa izango da.
- U15 y U18: Donostiatik kanpo jokatzen diren partidetara joan-etorriak senitartekoek ordaintzen dituztenez, bozketa bidez erabakiko da bidaiak autobusez edo auto partikularretan egingo diren. Autobsez egitekotan, senitartekoek bidaia probestu ahalko dute seme-alabekin joateko.
- Senior gizonezkoak y Senior emakumenezkoak: Joan-etorriak klubak ordaintzen dituen autobusa jokalaria, entrenatzaile eta ordezkarietarako izango da soilik.
- Haien garapena hobetzeko asmoz, adinagatik posible duten jokalaria guztiek goragoko kategoriako partidetan parte har dezaten saiakera egingo da, betiere kategoria horretan sortu daitezkeen beharrak kontuan hartuta.



10 AGINDUAK

- 1.- Jokatu ahal duzun ondoen eta maitatu Hockeya.
- 2.- Ez gutxietxi entrenatzailea.
- 3.- Ez gutxietxi arbitroa.
- 4.- Taldekideei lagundu. DENOK zarete talde bat.
- 5.- Barre egin eta jokatzeari gozatu.
- 6.- Aurkariaren joko ona balioan jarri.
- 7.- Ez ahaztu, joko bat baino ez da.
- 8.- Ez erantzun jokabide bortitzekin
- 9.- Ahaztu azkar porrota.
- 10.- Animatu ilusioz eta harrotasunez.

“Ez dezagun ahaztu Hockeya joko bat baino ez dela, dagoen onena, bai, baina joko bat besterik ez...”